

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 49/2023 Foru Dekretua abenduaren 19koa. Onespena ematea honako hauek aldatzeari: 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituena; 71/2008 Foru Dekretua, uztailaren 8koa, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituena, eta 111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra

Foru Dekretu honen xedea honako hauek aldatzea da: 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituena; 71/2008 Foru Dekretua, uztailaren 8koa, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituena; eta 111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra.

Zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen erregelamenduari dagokionez, beharrezkoa da Ekonomia Itunaren azken aldaketan itundutako zergen erregistroak arautzea, honako erregistro berri hauek barne hartuta: Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga, Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga berezia eta Hondakinak zaborte-gietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zerga. Era berean, Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroa arautu behar da.

Erregistro berriak txertatzeak berekin dakar, halaber, erroldaren inguruko betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatze beharra arautzea, bai eta erregistro horietan errolda egoeren identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatzeak duen eragina ere.

Azkenik, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretua aldatzearen bidez (zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra), banakako pentsioen produktu paneuroparrei (PEPP), atzerriko txanpon birtualei, txanpon birtualetako saldoei eta txanpon birtualekin egindako eragiketegi buruzko informazio betebeharrak garatzen dira.

Foru Dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako erregulazio onaren printzipioekin. Premia eta eraginkortasun printzipioei dagokienez, araua beharrezkoa da Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituen uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuan, eta kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra arautzen duen abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuan jasotako alderdi formalak aldatzeko. Bat etorri proportzionaltasun printzipioarekin, adierazitako helbururako ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen du, ez baitago eskubideak gutxiago murrizten dituen aukera arautzailerik. Segurtasun juridikoaren eta eraginkortasunaren printzipioen arabera, koherentea da ordenamendu juridikoarekin, eta baliabide publikoen kudeaketa eraginkorragoa ahalbidetzen du. Gardentasunaren printzipioa ere betetzen du, argi eta garbi identifikatzen baitu bere asmoa, eta, araua egiteko prozeduran zehar, hartzaile izan daitezkeen parte hartze aktiboa ahalbidetu da, entzunaldiko izapidearen eta jendaurreko informazioaren bidez.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako araudi inaktuaren txosten laburtua eta Kontsulta Batzordearena aztertu dira, eta Batzordearen inguruko ondorioak ez dira kontuan hartu.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau,

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. 3/2011 Foru Dekretua, urtarrilaren 25ekoa, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen

Honako aldaketa hauek egiten dira zergadunen errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan:

Bat. Aldatu egiten dira 3. artikuluko 1. apartatuko c) eta g) letrak, eta beste lau letra gehitzen dira —h), i), j) eta k) letrak— apartatuaren amaieran. Honela geratzen dira:

“c) Zerga berezien lurralde erregistroa.”

“g) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 119. artikuluan aipatzen den sozietateen gaineko zergaren entitateen indizea.”

“h) Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroa.

i) Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren lurralde erregistroa.

j) Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren lurralde erregistroa.

k) Hondakinak zabortegetan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergaren lurralde erregistroa.”

Bi. 6. artikulua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“6. artikulua. Zerga berezien lurralde erregistroa

Zerga Berezien Lurralde Erregistroa uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onartutako Zerga Berezien Erregelamenduaren 40., 138. eta 146. artikuluetan aipatzen diren pertsona eta establezimenduek osatuko dute, eta Arabako Lurralde Historikoari aplikatuko zaio irailaren 16ko 11/1997 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera. Erregistro hori Zerga Berezien Erregelamenduan eta Foru Dekretu honetan zentsu betebeharrei buruz ezarritako xedapenen arabera arautuko da.”

Hiru. 7. artikuluari edukia ematen zaio, eta honela geratzen da:

“7. artikulua. Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroa

Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroa honako hauek osatuko dute: Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeek, edozein dela ere haien egoera.

Ateratzea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen urtarrilaren 19ko 12/1993 Foru Dekretu Arauemailearen eranskinaren bosgarren apartatuarekin bat etorritik, aduanakoa ez den gordailu erregimena uzten den guztietan egingo da, eta, ondorioz, erazlearentzat Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondasunen inportazioarekin parekatutako eragiketa baten sortzapena zehazten denean. Era berean, ateratzetzat hartuko da eta hori egiten duen pertsona

edo erakundea erregistro horretan inskribatzea eskatuko da etete-araubidean beste gordailu fiskal baterako irteera bat gertatzen denean. Ez da erregistratu beharko baldin eta aduanakoa ez den gordailu erregimena azkendu ondoren erauzleak egindako entrega Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita badago.

Aurreko paragrafoan xedatutakoak ez du loturarik izango gordailu fiskalak zerbitzua ematen dion pertsona edo erakundearekin. Pertsona edo erakunde horrek beste bati produktuak ateratzeko baimena ematen badio, baimendunak aurreko paragrafoan aipatutako erregistroan ere eman beharko du izena.

Erregistro horretan sartzeko, interesdunak eskaera egin beharko du alde zurretik, eta zer produktu motari buruzkoa den zehaztu, alta adierazpenerako edo errolda datuak aldatzeko xedatutako moduan.”

Lau. 9 bis artikulua gehitzen da. Hona testua:

“9 bis artikulua. Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren lurralde erregistroa

Berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren lurralde erregistroa berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergari buruzko uztailaren 9ko 27/2014 Foru Arauan aipatzen diren pertsona eta erakundeek osatuko dute.”

Bost. 9 ter artikulua gehitzen da. Hona testua:

“9 ter artikulua. Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren lurralde erregistroa

Berrerabili ezin diren plastikozko ontzien gaineko zerga bereziaren lurralde erregistroa erregistro horretan izena eman behar duten pertsona edo erakundeek osatuko dute, zerga hori arautzen duen Arabako foru araudiaren arabera.”

Sei. 9 quater artikulua gehitzen da. Hona testua:

“9 quater artikulua. Hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergaren lurralde erregistroa

Hondakinak zabortegietan uztearen, erraustearen eta hondakinen baterako errausketaren gaineko zergaren lurralde erregistroa erregistro horretan izena eman behar duten pertsona edo erakundeek osatuko dute, zerga hori arautzen duen Arabako foru araudiaren arabera.”

Zazpi. 10. artikulua 1. apartatuaren k) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“k) Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren 10. artikuluan aipatzen diren ordezkarien izen-abizenak edo izen soziala edo izen osoa eta identifikazio fiskaleko zenbakia.”

Zortzi. Aldatu egiten dira 10. artikuluko 3. apartatuko b) letraren 1., 2., 3., 5., 10., 11. eta 15. zenbakiak, eta honela geratzen dira:

“1. Sozietateen gaineko zergatik guztiz salbuetsita dagoen erakundea izatea, zerga hori arautzen duen abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikulua 1. apartatua xedatutakoaren arabera.

2. Sozietateen gaineko zergatik partzialki salbuetsita dagoen erakundea izatea, zerga hori arautzen duen abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikulua 2. apartatua xedatutakoaren arabera.

3. Irabazteko asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarrii buruzko abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauaren II. tituluan ezartzen den zerga araubide berezia hautatu edo araubide horri uko egitea.”

“5. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua hautatu duen, uko egin dion, ukoa ezeztatu duen edo hartatik salbuetsita dagoen.”

“10. Zerga berezien lurralde erregistroan dagoen edo baja eman zaion.

11. Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fisikaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroan dagoen edo baja eman zaion.”

“15. Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 119. artikuluan aipatzen den Entitateen Indizean dagoen edo baja eman zaion.”

Bederatzi. 12. artikulua 3. apartatuko f), ñ) eta w) letrak aldatzen dira, eta 3. apartatuaren amaieran paragrafo bat gehitzen da; honela geratzen dira:

“f) Zerga oinarria mozkin marjina orokorraren bidez zehaztea hautatu, arte objektu, bilduma objektu eta erabilitako ondasunen araubide berezian, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 137. artikuluko bigarren atalean ezartzen duenaren arabera.”

“ñ) Abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak, irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoak, II. tituluan ezartzen duen zerga araubide berezia hautatu.”

“w) Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fisikaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroan sartzeko eskatzea, Foru Dekretu honen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.”

“Artikulu honetan aipatzen den alta, halaber, zerga araudian xedatutako edo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu sailleko diputatuak zehazten dituen zentsu izaerako bestelako gertaera eta inguruabarrak jakinarazteko izango da.”

Hamar. 13. artikulua 2. apartatuko c), g), l) eta s) letrak aldatzen dira, eta 2. apartatuaren amaieran paragrafo bat gehitzen da; honela geratzen dira:

“c) Zerga oinarria mozkin marjina orokorraren bidez zehazteko metodoa hautatu, arte objektu, bilduma objektu eta erabilitako ondasunen araubide berezian, urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuak, balio erantsiaren gaineko zergari buruzkoak, 137. artikuluko bigarren atalean ezartzen duenaren arabera.”

“g) Aukerak ezeztatu edo eskabideak aldatu, apartatu honetako c), d), e), q), r), s) eta t) letrak eta Foru Dekretu honetako 12. artikuluko 3. apartatuko f), h), s), t), x) eta w) letrak aipatutakoak, baita apartatu honetako f) eta u) letrak eta foru dekretuko 12. artikuluko 3. apartatuko i), u) eta y) letrak aipatutako egoera aldaketak jakinarazi ere.”

“l) Abenduaren 23ko 35/2021 Foru Arauak, irabazteko asmorik gabeko erakundeen zerga araubideari eta mezenasgorako zerga pizgarriei buruzkoak, II. tituluan ezartzen duen zerga araubide berezia hautatu edo araubide horri uko egin.”

“s) Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fisikaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroan sartzeko eskatzea, altaren zentsu aitortpena aurkeztu ondoren, erregistroan sartzeko eskatzen diren inguruabarrak gertatzen direnean, bai eta erregistro horretan baja emateko ere, Foru Dekretu honen 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.”

“Artikulu honetan aipatzen den aldaketa aitortpena, halaber, zerga araudian xedatutako edo Ogasun, Finantza eta Aurrekontu sailleko diputatuak zehazten dituen zentsu izaerako bestelako gertaera eta inguruabarrak jakinarazteko izango da.”

Hamaika. Aldatu egiten da 13. artikulua 4. apartatuko d) letra, eta i) letra gehitzen da; honela geratzen dira:

“d) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua hautatzea, atzera botatzea edo, hala badagokio, salbuestea, indarrean jarri behar den urte naturaleko martxoaren 1a baino lehen egin beharko da.

Balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezi erraztua edo araubide berezia atzera botatzeko edo horiei uko egiteko, ondorioak izango dituen urte naturala hasi aurreko abenduan egin beharko da. Hala ere, jarduera berri bat hasiz gero, jarduera horren hasierako adierazpena aurkeztearekin batera aurkeztu beharko da uko egitea.

Errentak esleitzeko araubideko erakundeek kasuan, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren zuzeneko zenbatespenaren metodoaren modalitate erraztua hautatzea eta, hala badagokio, atzera botatzea edo baztertzea, eta balio erantsiaren gaineko zergaren nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezi erraztuari edo araubide bereziari uko egitea edo atzera botatzea erakundeak egin beharko du, eta, gainera, bazkide, erkide, jaraunsle edo partaide guztien identifikazio datuak eta sinadura jaso beharko dira.

Jarduera ekonomiko bat baino gehiago egiten dituzten pertsona fisikoek eta errentak esleitzeko araubideko erakundeek aldaketa aitortpen bat aurkeztu beharko dute jarduera horietako bakoitzeko, letra honetan ezarritakoaren ondorioetarako.”

“i) Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundearen erregistroan sartzeko eskaera inskribatzeko betebeharra eskatzen duten eragiketak egin aurretik aurkeztu beharko da.”

Hamabi. 17. artikulua 2. eta 3. apartatuak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“2. Foru Dekretu honetan aipatzen diren zentsu aitortpenak aurkezteak Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 119. artikuluan aipatzen den entitateen indizean alta aurkeztea ordeztu du.”

“3. Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartutako Zerga Berezien Erregelamendua 40., 138. eta 146. artikuluetan aipatzen diren Zerga Berezien Lurralde Erregistroan inskribatutako zergapekoek Zergadunen Errolda Bakarrean baja emateko eskaera aurkezten badute, erregistro horretan baja emateko eskaeraren berezko ondorioak izango ditu, zergapekoa titular duten Arabako Lurralde Historikoko establezimenduei dagokienez.”

Hamahiru. 21. artikulua 6. apartatua gehitzen zaio. Hona:

“6. Kautelazko baja eman ahal izango da batasun barruko operadoreen erregistroetan, Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsona edo erakundearen erregistroan, eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamendua (erregelamendu hori apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) 30. artikuluan aipatutako hileko itzulketen erregistroan izena emanda dauden pertsona edo erakundeei, arrazoitutako erabakiaren bidez eta proposamena egin duen organoaren txostena jaso ondoren, honako kasu hauetan:

a) Zerga jarduketa edo prozedura batean egiaztatzen bada aitortu den jarduera ekonomikoa edo xede soziala ez dela existitzen, jarduera hori ez dela adierazitako helbidean egiten ari, edo negozioen kudeaketa administratiboa eta benetako zuzendaritza ez daudela kokatuta emandako zerga helbidean.

b) Zergak aplikatzeko edozein jarduketa edo prozedura jakinaraztean zergapekoa ezezaguna suertatu denean.

c) Egiaztatzen bada zergapekoak esku hartu ahal izan duela kanpo edo batasun barruko merkataritza eragiketetan edo Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuekin lotutakoetan, baldin eta eragiketa horietatik ondoriozta badaiteke balio erantsiaren gaineko zergarekiko zerga betebeharra ez dela bete edo zilegi ez zituen zerga onurak edo itzulketak lortu dituela.

Aurreko a), b) eta c) letretan xedatutako kasuetan, kautelazko baja behin betiko bihurtuko da zergapekoaren zuzenketa zentsala egiten denean Foru Dekretu honetako 22. eta 23. artikuluetan jasotakoaren arabera.

Batasun barruko operadoreen erregistroetan, Alkoholaren eta edari eratorrien gaineko zergaren edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsona edo erakundeen erregistroan, eta apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 30. artikuluan aipatutako hileko itzulketen erregistroan kautelazko baja emateko inguruabarrak betetzen badira erregistro horietan sartzeko eskaera egiten denean, administrazioak ezezkoa emango dio haietan sartzeari, arrazoitutako erabakiaren bidez.”

Hamalau. 22. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Egoera zentsala zuzentzeko prozedura bi modutara has daiteke: administrazioak zergapekoari errekerimendu bat bidaliz, aurkitutako desadostasunak edo haren egoera zentsalari buruzko datuak argitu edo justifikatu ditzan, edo, bestela, ebazpen proposamena jakinaraziz, betiere administrazioak proposamen hori emateko datu nahikoak baditu.

Foru Dekretu honen 21. artikuluen 6. apartatuan aipatzen diren egitateak zergak aplikatzeko prozeduratik kanpo egindako jarduketetan egiaztatzen direnean, egoera zentsala zuzentzeko prozedura hilabeteko epean hasi beharko da, batasunaren barruko operadoreen erregistroan, Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsona edo erakundeen erregistroan eta apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 30. artikuluan aipatzen den hileko itzulketen erregistroan kautelazko baja emateko erabakia hartzen denetik zenbatzen hasita. Hilabeteko epea betetzat jotzeko, nahikoa izango da frogatzea prozeduraren hasiera jakinarazteko ahalegina egin dela epe horretan. Prozedura ez bada epe horretan hasten, kautelazko neurria kendu egingo da.”

Bigarren artikulua. Uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretua, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituen

Aldaketa hauek egin dira uztailaren 8ko 71/2008 Foru Dekretuan, identifikazio fiskaleko zenbakiaren inguruko betebeharrak eta haren osaera arautzen dituen.

Bat. 1. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Pertsona fisiko eta juridikoek, bai eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35. artikuluen 3. eta 6. apartatuetan aipatzen diren zergapekoek ere, identifikazio fiskaleko zenbaki bat izango dute zerga izaera duten edo zergen arloko harremanetarako.”

Bi. 2. artikuluko c) letrako a') tartekia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a') Espainian establezimendu iraunkor baten bidez lan egiten badute, establezimendu horren egoitza fiskala Arabako Lurralde Historikoan dagoenean, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.”

Hiru. 8. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbaki bat esleitzen denean, erakundeak falta den dokumentazioa aurkeztu beharko du, behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia esleitzeko, hilabeteko epean, dagokion erregistroan izena ematen duenetik edo eskritura publikoak edo eraketaren eta estatutu sozialen dokumentu fede-emaileak edo eraketaren dokumentu baliokideak ematen direnetik zenbatzen hasita, horiek dagokion erregistroan inskribatu behar ez direnean.

Aurreko paragrafoan aipatutako epea igarota edo behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu denetik sei hilabete igaro badira eta oraindik dokumentazioa aurkeztu ez bada, Zerga Administrazioak gehienez hamar eguneko epea eman ahal izango du, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, dokumentazioa aurkezteko edo hura aurkeztea eragozten duten arrazoiak justifikatzeko; kasu horretan, interesdunak dokumentazioa behin betiko aurkezteko behar duen epea adieraziko du.

Falta den dokumentazioa aurkezteko errekerimenduari garaiz eta behar bezala erantzuten ez bazaio, esleitutako identifikazio zenbakia baliogabetu ahal izango da, foru dekretu honen 17. artikuluan aipatzen den moduan, interesdunari entzun ondoren.”

Lau. 9. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, hurrengo 2. idatz zatian aipatzen diren batasun barruko eragiketak egiten dituzten pertsona edo erakundeentzat, identifikazio zenbakia Foru Dekretu honetan ezarritakoaren arabera zehaztutakoa izango da, eta horren aurretik ES aurrizkia jarriko da, ISO-3166 alfa 2 kodeko nazioarteko estandarraren arabera.

Zenbaki hori interesdunak batasunaren barruko operadoreen erregistroan sartzeko eskatzen duenean esleituko da, indarrean dagoen legerian xedatutako moduan. Zerga Administrazioak zenbaki hori esleitzea ukatu ahal izango du, baldin eta foru dekretu honen 8. artikulua 1. apartatuan jasotako kasua gertatzen bada, bai eta hurrengo paragrafoan xedatutako kasua gertatzen bada ere.

Behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu zaien pertsona edo erakundeek behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia lortzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezten ez badute Foru Dekretu honen 8. artikulua 3. apartatuan ezarritako epean edo, hala badagokio, artikulua horrek aipatzen duen errekerimenduan emandako epean, salbu eta epe horietan behar bezala justifikatzen bada dokumentazioa aurkeztea ezinezkoa dela, Zerga Administrazioak baja eman ahalko die Batasunaren barruko operadoreen erregistroan, Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsona edo erakundeen erregistroan eta apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 30. artikuluan aipatzen den hileko itzulketen erregistroan.

Zerga Administrazioak hiru hilabeteko epean ebazpenik ematen ez badu, eskatutako zenbakiaren esleipena ukatutzat joko da.”

Bost. 11. artikulua 2. apartatuaren b) eta c) letrak aldatzen dira, eta honela gelditzen dira:

“b) Espainian kokatutako tituluen edo kontu idatzoharren bitartez adierazitako baloreak eskuratzen eta eskualdatzen direnean. Kasu horietan, eskuratzea edo eskualdatzea lortu nahi duten pertsonak edo erakundeek, dagokion agindua ematearekin batera, beren identifikazio fiskaleko zenbakia jakinarazi beharko diote erakunde jaulkitzaileari edo dagozkien finantza bitartekariari. Horiek ez dute hura kontuan hartuko betebeharrak hori bete arte, Arabako zerga araudian xedatutakoaren arabera, zeinak Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren (urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) 315. artikulua Arabako legedira ekartzen baitu.

Gainera, eskuratzaileren identifikazio fiskaleko zenbakia agertu behar da etekin inplizitua duten finantza aktiboen eskuraketa frogatzen duten ziurtagirietan.

Idatz zati honetan xedatutakoa ez da aplikatuko foru dekretu honen 12. artikuluko 7. apartatuan zehazten diren kontu bidezko baloreen eskuraketetan edo eskualdaketetan.”

“c) Notarioaren aurrean formalizatzen direnean ondasun higiezinaren gaineko jabaria eta gainerako eskubide errealak edo zerga arloko beste edozein egintza edo kontratu deklarazioa, eratzeko, eskuratzea, eskualdatzea, aldatzea edo azkentzea xede duten egintzak edo kontratuak. Kasu horietan, eskriturretan edo dokumentuetan agertu diren pertsonen edo erakundeen identifikazio fiskaleko zenbakia jaso beharko da, bai eta ordezkatzeko dituzten pertsonena ere.

Betebehar hori betetzen ez bada, notarioek Zerga Administrazioari abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 16. artikuluan xedatutako informazio aitorpena aurkeztu beharko diote (111/2008 Foru Dekretua, kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen berri emateko beharra arautzen duena), horretarako ezarritako baldintzetan eta epean.”

Sei. 12. artikuluko 4. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“4. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren laugarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, kreditu erakundeek apartatu horretan aipatzen diren datuak jaso beharko dituzte igorritako txeeen matrizeetan edo kopietan eta ordaindutako txeeen atzealdean. Halakorik ezean, eragiketa horiek kontrolatzeko erabilitako erregistro osagarrietan, kontabilitatekoetan edo bestelakoetan jaso beharko dira, ondoren egiaztatu ahal izateko.

Era berean, kreditu erakundeek Zerga Administrazioari abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen den informazioa jakinarazi beharko diote (111/2008 Foru Dekretua, kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen berri emateko beharra arautzen duena), bertan ezarritako baldintzetan eta epean.”

Zazpi. 16. artikuluko 1. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Pertsona juridiko edo erakunde ez-egoiliar batek Espainian jarduten badu argi eta garbi bereizitako jarduerak egiten dituzten establezimendu iraunkor baten edo batzuen bidez, establezimendu iraunkor bakoitzak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakiaz bestelako bat eskatu beharko dio, hala badagokio, egoiliarra ez den pertsona edo erakundeari.”

Zortzi. Aldatu egiten dira 17. artikulua 1. eta 6. apartatuak, eta 7. eta 8. apartatuak gehitzen dira amaieran. Honela geratzen dira:

“1. Zerga Administrazioak esleitutako identifikazio fiskaleko zenbakia baliogabetu ahalko du, baldin eta egindako egiaztatze jarduketetan edo gainerako egiaztapen edo ikerketa jarduketa eta prozeduretan honako inguruabar hauek egiaztatzen badira, besteak beste:

a) Behin-behineko identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu zaien pertsonak edo erakundeek behin betiko identifikazio fiskaleko zenbakia emateko behar den dokumentazioa aurkezten ez dutenean, foru dekretu honen 8. artikulua 3. apartatuan ezarritako epean edo, hala badagokio, artikulua horretan aipatzen den errekerimenduan emandako epean, salbu eta epe horietan behar bezala justifikatzen bada ezinezkoa dela dokumentazioa aurkeztea.

b) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 120. artikulua 1. apartatuan araututako kasuak gertatzen direnean.

c) Urtebetetik gorako aldiaren eta gutxienez hiru jakinarazpen saiakera egin ondoren, zergapekoari egoitza fiskalean jakinarazpenak egitea ezinezkoa gertatu denean, edo kaudimenga-beziagatik hiru zergaldi edo likidazio alditan zorrei baja eman zaienean.

d) Zerga administrazioari jarduera ekonomiko faltsuak, existitzen ez direnak edo benetan egindakoez bestelakoak egin direla jakinarazten zaienean, egindako eragiketa errealak ezagutzea eragozteko, zerga betebeharrak ez betetzea edo zerga onurak edo itzulketak bidegabe lortzea ekar ditzakeenean.

e) Fundatzaile batek edo batzuek sozietate bat eratu, eta identifikazio fiskaleko zenbakia eskatu denetik hiru hilabeteko epean jarduera ekonomikoa hasi ez bada eta jarduera hori benetan gauzatzeko ohiko prestaketak hasi ez badira, egintza horiek epe horretan egitea ezinezkoa dela behar bezala egiaztatzen denean izan ezik.

f) Kapital bera sozietate bat baino gehiago eratzeko erabili dela egiaztatzen denean, halako moldean non, horiek guztiak kontuan hartuta, ondorioztatzen den ez dela egin araudiak eskutatako gutxieneko ordainketa.

g) Jarduera ekonomikoak, administrazio kudeaketa edo negozioen zuzendaritza itxurazko egoitza edo helbide faltsu batean egiten direla jakinarazten denean, jarduera edo jarduketa horiek beste egoitza batean egin izana justifikatu gabe.

h) Identifikazio fiskaleko zenbakia esleitu zaion pertsona fisikoak edo erakunde ez-egoiliarak ez duenean jakinarazten Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko ekainaren 18ko 21/2014 Foru Arauan aipatzen den ordezkari aldaketa, edo, bestela, zenbaki hori ordezkaria izendatu beharrik ez duten egintzak edo izapideak egiteko eskatu, eta ondoren ordezkari bat jakinarazi gabe egiten baditu.

i) Ondo ondoko lau ekitalditan urteko kontuak Merkataritza Erregistroan gordailutzeko bete-beharra bete ez dela egiaztatzen denean.”

“6. Identifikazio fiskaleko zenbakia ezeztatzen bada, baja emango zaie Batasunaren barruko operadoreen erregistroetan, zerga bereziak arautzen dituen araudian xedatutako lurralde erregistroetan, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren lurralde erregistroan, alkoholaren eta edari eratorrien edo hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboan sartutako produktuak gordailu fisikaletatik ateratzen dituzten pertsona edo erakundeen erregistroan eta apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 30. artikuluan aipatzen den hileko itzulketen erregistroan.

7. Identifikazio fiskaleko zenbakia ukatuko da zenbakia esleitu aurretik hura baliogabetzeko inguruabarretako bat gertatzen denean.

8. Identifikazio fiskaleko zenbaki bat ezeztatu ondoren Zerga Administrazioak berriz ere gaitu ahal du erabaki bidez. Erabaki hori artikuluko 3. apartatuan ezeztapen erabakietarako ezarritakoari lotuz argitaratu behar da.

Identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzeko eskabideak bakarrik izapidetuko dira baldin eta egiaztatzen bada desagertu egin direla zenbaki hori ezeztatzea eragin zuten arrazoiak eta, sozietateen kasuan, komunikatzen bada, gainera, nork duen sozietatearen kapitalaren titulartasuna; halaber, osorik identifikatu behar dira sozietatearen legezko ordezkariak zein zerga egoitza, eta sozietateak egingo duen jarduera ekonomikoa egiaztatzen duen dokumentazioa ere eman behar da. Zehazki, zenbakia baliogabetzeko arrazoia artikuluko honen 1. apartatuaren i) letra denean, identifikazio fiskaleko zenbakia birgaitzeko egiaztatu beharko da urteko kontuak Merkataritza Erregistroan gordailutzeko bete-beharra zuzendu dela. Baldintza horiek guztiak betetzen ez bada, eskabideak artxibatu egingo dira, besterik gabe.

Identifikazio fiskaleko zenbaki bat birgaitzeko eskabidea berariaz ebazten ez bada hiru hila-betean, eskaera ukatuzat jo beharko da.”

Bederatzi. 18. artikulua edukirik gabe uzten da.

Hirugarren artikulua. 111/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra

Lehenengoa. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuari, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra:

Bat. 18. artikuluko a) letra eta f) letrako lehenengo paragrafoa aldatzen dira, eta honela gertatzen dira:

“a) Pentsio funtsak kudeatzen dituzten erakundeak. Banan-banan jasoko dira funts horiei atxikitako planetako partaideak eta haiek zuzenean, pertsona baimenduen edo plan horien sustatzaileen bidez egindako ekarpenen zenbatekoa.

Era berean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan araututako banakako pentsioen produktu paneuroparren sustatzaileak (erregelamendu hori banakako pentsioen produktu paneuroparrari (PEPP) buruzkoa da); banan-banan jasoko dituzte plan horietako aurreztaileak eta haiek PEPP kontu bakoitzaren azpikontuei egindako ekarpenen zenbatekoa.

Letra honetan aipatzen diren urteko aitorenak urte bakoitzeko urtarrilean aurkeztuko dira, aurreko urte naturalari dagokionez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuak zehazten duen tokian eta ereduaren arabera. Halaber, hark ezarri ahal izango du zer kasutan aurkeztu behar diren telematikoki.

Aurrekoa gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuak foru agindu bidez aldatu ahalko du aitoren horiek aurkezteko epea.”

“f) Gizarte aurreikuspeneko mutualitateak; mutualistek gastu kengarritzat jotzen diren edo zergaren zerga-oinarrian murriz daitezkeen kontingentziak estaltzeko ordaindutako zenbatekoak jasoko dituzte, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.”

Bi. 23 bis artikulua gehitzen da. Hona testua:

“23 bis artikulua. Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazioa emateko betebeharra

1. Araban bizi diren pertsona fisiko eta juridikoek, bertan bizi ez diren pertsona edo erakundeek establezimendu iraunkorrek eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 35. artikulua 3. apartatua aipatzen diren erakundeek urteko informazio aitoren egin beharko dute, urte bakoitzeko abenduaren 31n, titular diren eta atzerrian kokatutako txanpon birtual guztiei buruz, edo horien onuradun badira, erabiltzeko baimena badute edo nolabait erabiltzeko ahalordea badute, edo, idatz zati honen azken paragrafoan adierazitakoaren arabera, benetako titularra badira eta hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituzten pertsonen edo erakundeek zaintzen badituzte, txanpon birtualak mantendu, biltegitatu eta transferitzeko.

Betebehar hori izango dute, halaber, txanpon birtual horien titular, baimendu edo onuradun izan diren pertsona edo erakundeek, edo horiek erabiltzeko ahalordea izan dutenek, edo deklarazioari dagokion urteko edozein unetan titular errealak izan direnek, betiere izaera hori galdu badute urte horietako abenduaren 31n. Kasu horietan, eman beharreko informazioa uzte hori gertatu zen datari egokituko zaio.

Ondorio horietarako, titular erreala izango da Kapitalak zurtzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluko 2. idatz zatian ezarritakoaren arabera, 2. idatz zati horrek aipatzen dituen pertsona edo tresnen izenean dauden txanpon birtualen titular erreala dena, atzerrian badute egoitza edo atzerrian eratu badira.

2. Artikulu honen ondorioetarako, txanpon birtuala Kapitalak zurtzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 1. artikulua 5. apartatua xedatutakoaren arabera ulertuko da.

Txanpon birtualak atzerrian daudela ulertuko da txanponak zaintzen dituen pertsona, erakunde edo establezimendu iraunkorrak, hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituen txanpon horiek mantendu, biltegitatu eta transferitzeko, ez duenean aurkeztu behar Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren hamargarren xedapen gehigarriaren 6. apartatua aipatzen den informazio betebeharra.

3. Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hauek jasoko ditu:

a) Txanpon birtualak mantentzeko, biltegitratzeko eta transferitzeko hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen izen-abizenak edo sozietate izena edo izen osoa eta, hala badagokio, identifikazio fiskaleko zenbakia, bai eta helbidea edo webgunearen helbidea ere.

b) Txanpon birtual mota bakoitzaren identifikazio osoa.

c) Txanpon birtual mota bakoitzaren saldoak abenduaren 31n, txanpon birtualeko unitateetan adierazita, eta horien balorazioa eurotan.

Balorazioa eurotan egiteko, behartuta dauden subjektuek negoziazio plataforma nagusiek edo prezioen jarraipena egiteko webguneek abenduaren 31n emandako kotizazioa hartuko dute edo, bestela, txanpon birtualaren merkatu balioaren arrazoizko zenbatespena egingo dute eurotan. Horri dagokionez, zenbatespena egiteko erabilitako kotizazioa edo balioa adieraziko da.

4. Abenduaren 31ko saldoei buruzko informazioa pertsona edo erakunde titularrak, onuradunak, baimenduak edo txanpon birtualak erabiltzeko ahalmena duenak edo data horretan benetako titular denak eman beharko du.

Gainerako pertsona edo erakunde titularrek, onuradunek, baimenduek, erabiltzeko ahalmena duten pertsonak edo benetako titularrek txanpon birtualen saldoak adierazi beharko dituzte gaitasun hori izateari utzi zioten egunean.

5. Artikulu honetan jasotzen den informazioa eman beharra ez zaie aplikatuko ondoko txanpon birtualei:

a) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikularen 1. apartatuan aipatzen diren erakundeen titulartasunekoak direnak.

b) Araban bizi diren pertsona juridikoen eta gainerako erakundeen titulartasunekoak direnak, bai eta Arabako ez-egoiliarren establezimendu iraunkorrenak ere, baldin eta kontabilitatean banaka erregistratuta badaude eta beren izenagatik, balioagatik eta zaintza erakundeagatik eta kokatuta dauden herrialdeagatik edo lurraldeagatik identifikatuta badaude.

c) Araban bizi diren pertsona fisikoak titular dituztenak, baldin eta jarduera ekonomiko bat garatzen badute, kontabilitatea Merkataritza Kodean xedatutakoaren arabera egiten badute, kontabilitate dokumentazio horretan banaka erregistratuta badaude eta izenagatik, balioagatik eta zaintza erakundeagatik eta kokatuta dauden herrialdeagatik edo lurraldeagatik identifikatuta badaude.

d) Ez da txanpon birtualen berri eman beharko baldin eta artikulu honen 3. apartatuaren c) letran aipatzen diren abenduaren 31ko saldoak, eurotan, guztira 50.000 eurotik gorakoak ez badira. Baterako muga hori gaindituz gero, txanpon birtual guztiei buruzko informazioa eman beharko da.

6. Betebehar hori eman beharreko informazioaren hurrengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean bete beharko da, dagokion lekuan eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuak zehazten duen aitorten ereduaren arabera. Halaber, hark ezarri ahal izango du zer kasutan aurkeztu behar den telematikoki.

Aurrekoa gorabehera, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuak foru agindu bidez aldatu ahalko du aitorten hori aurkezteko epea.

Hurrengo urteetako aitortena aurkeztu beharra egongo da baldin eta artikulu honen 5. apartatuaren d) letran aipatzen den saldo batuak 20.000 euro baino gehiagoko gehikuntza izan badu azken aitortena aurkeztu beharra ekarri zuenaren aldean.

Edonola ere, aitortena aurkeztu beharra egongo da artikulu honetako 4. idatz zatiko azken paragrafoan aurreikusitako kasuetan, bertan aipatzen diren txanpon birtualekiko.

7. Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, hainbat datu multzo osatzen dituzte artikuluko 3. apartatuko a) idatz zatian erakunde bakoitzerako eta artikuluko 3. apartatuko c) idatz zatian aipatzen diren informazioek, bai eta txanpon birtual bakoitzerako artikuluko 4. apartatuko azken paragrafoan aipatzen direnek ere.

Ondorio horietarako, datutzat hartuko da artikuluko honen 3. apartatuaren b) letran txanpon birtual bakoitzerako aipatzen den informazio oro.”

Bigarrena. Honako aldaketa hauek egiten zaizkio abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuari, zeinaren bidez arautzen baita kontuen, eragiketen eta finantza aktiboen eta atzerrian dauden ondasun eta eskubideen berri emateko beharra:

Bat. 4. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Aseguru erakundeek, helbidea Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kide batean izanik Espainian zerbitzugintza askearen araubidean diharduten aseguru erakundeak barnean direla, zein finantza erakundeek, urteko aitortpena aurkeztu beharko dute, eta bertan bildu beharko dute jarraian adieraziko den informazioa:

a) Bizi-aseguru bat abenduaren 31n kontratatuta duten pertsonen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, egun horretan duen erreskate balioa adierazita, edo, hala badagokio, hornidura matematikoak abenduaren 31n duen balioa adierazita, Ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikuluko Bat apartatuan xedatutakoaren arabera.

b) Kapital bat dirutan, ondasun higigarritan edo higiezinetan ematearen ondorioz abenduaren 31n aldi baterako edo biziarteko errenta baten onuradun diren pertsonen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia, data horretan duen kapitalizazio balioa adierazita, Ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikuluko Bi apartatuan xedatutakoaren arabera.

Bizi-aseguru baten ondorioz aldi baterako edo biziarteko errentak jasotzen badira, abenduaren 31n errentaren hartzaillearen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraziko dira, salbu eta aseguruaren hartzaila ez bada errentaren hartzaila eta erreskate eskubidea mantentzen badu; kasu horretan, hartzaillearen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia jakinaraziko dira aipatutako egunean.

Aurreko paragrafoan xedatutako kasuetan, abenduaren 31ko erreskate balioa adieraziko da edo, hala badagokio, data horretako hornidura matematikoaren balioa, Ondarearen gaineko zergari buruzko martxoaren 11ko 9/2013 Foru Arauaren 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.”

Bi. 20. artikuluko 4. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren erakundeen titulartasunekoak direnak.”

Hiru. 20. artikuluko 6. apartatuko lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratu da:

“6. Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, aurreko 2. apartatuko a) eta b) idatz zatietan, hurrenez hurren, aipatzen diren informazioak datu multzo desberdinak dira erakunde eta kontu bakoitzerako.”

Lau. 21. artikuluko 4. apartatua eta 5. apartatuaren a) eta c) letrak aldatzen dira, eta honela geratzen dira:

“4. Aurreko 1. idatz zatiak aipatzen dituen zergapekoek honako hauei buruzko urteko informazio aitortpena aurkeztu beharko dute Arabako Foru Aldundian:

a) Urte bakoitzeko abenduaren 31n jasotzaile diren bizi edo baliaezintasun aseguruak, aseguru etxea atzerrian badago. Egun horretan duten erreskate balioa ere adierazi beharko dute.

Hala ere, abenduaren 31n hartzaileak ez badu erabateko erreskate eskubidea baliatzeko ahalmenik, data horretako hornidura matematikoaren balioa adieraziko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez zaie aplikatuko heriotza edo baliaezintasun kasuetarako prestazioak edo bestelako arrisku berme osagarriak soilik jasotzen dituzten aldi baterako aseguruiei.

b) Abenduaren 31n onuradun diren aldi baterako edo biziarteko errentak, horien jatorria bada atzerrian dauden erakundeei eman izana kapitala dirutan, eduki ekonomikoko eskubideak edo ondasun higigarri edo higiezinak. Egun horretan duten kapitalizazio balioa ere adierazi beharko dute.

Hala ere, errenta horiek bizi-aseguru batetik datozenean, aurreko a) letran ezarritako balioa adieraziko da. Aseguruaren hartzailea ez bada errentaren onuraduna eta erreskate eskubideari eusten badio, hartzaileak emango dio informazio hori zerga administrazioari.

Aurreko a) eta b) paragrafoetan aipatutako kasuetan, aseguru etxea identifikatu beharko da, adierazita sozietatearen izena edo izen osoa eta helbidea.”

“a) Zergapekoa Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikulua 1. apartatua aipatzen diren erakundeetako bat denean.”

“c) Aurreko 2. idatz zatiko b), c) eta d) letrek aipatzen dituzten baloreak, 3. idatz zatiak aipatzen duen likidazio balioa, 4. idatz zatiko a) letrak aipatzen duen erreskate balioa edo hornidura matematikoa eta 4. idatz zatiko b) letrak aipatzen duen kapitalizazio balioa ez badira batuta 50.000 euro baino gehiago. Goi muga batu hori gaudituz gero, titulu, aktibo, balore, eskubide, aseguru edo errenta guztien berri eman beharra egongo da.”

Bost. 21. artikuluko 8. apartatuko lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratu da:

“8. Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, datu multzotzat hartzen dira 2. apartatuko a) letran eta aurreko 3. eta 4. apartatuetan aipatutako erakunde juridiko, hirugarren lagapen-hartzaile, tresna edo harreman juridiko, inbertsio kolektiboko erakunde eta aseguru erakunde bakoitzaren identifikazioari eta helbideari buruzkoak.”

Sei. 22. artikuluko 6. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikulua 1. apartatua aipatzen diren erakundeen titulartasunekoak direnak.”

Zazpi. 22. artikuluko 8. apartatuko lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratu da:

“8. Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, hainbat datu multzo osatzen dituzte artikuluko honen 2. apartatuaren a) eta b) letretan aipatzen diren informazioek, apartatu horretan aipatzen diren higiezonei dagokienez, eta aurreko 3. eta 4. apartatuetan aipatzen diren eskubideak dituzten higiezonei dagokienez.”

Zortzi. 23. artikulua 5. apartatuaren a) letra aldatzen da, eta honela geratzen da:

“a) Sozietateen gaineko zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 12. artikulua 1. apartatua aipatzen diren erakundeen titulartasunekoak direnak.”

Bederatzi. 23. artikuluko 7. apartatuko lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta honela geratu da:

“7. Arabako zerga araudian xedatutako zehapen araubidea aplikatzeko, hainbat datu multzo osatzen dituzte 2. apartatuaren a), b) eta c) letretan aipatzen diren informazioek, apartatu horretan aipatzen diren ondasun higigarriei dagokienez, eta aurreko 3. apartatua aipatzen diren eskubideak dituzten ondasun higigarriei dagokienez.”

Hamar. 26. artikulua gehitu da. Hona testua:

“26. artikulua. Txanpon birtualen saldoei buruz informatzeko beharra

1. Espainian bizi diren pertsona eta erakundeek eta atzerrian bizi diren pertsona edo erakundeen establezimendu iraunkorrek, hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen badituzte, txanpon birtualak mantendu, biltegitatu eta transferitzeko, bai zerbitzu hori nagusiki ematen bada, bai beste jarduera batekin lotuta ematen bada, zaintzen dituzten txanpon birtual guztiei buruzko urteko informazio aitortpena aurkeztu beharko dute, dagokion eredia onesten duen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuaren foru aginduak ezartzen duen lekuan, moduan eta epean.

2. Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hau jasoko du: urteko uneren batean txanpon birtualen titular, baimendu edo onuradun diren pertsonen edo entitateen izen-abizenak, izen soziala edo izen osoa, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia, eta saldoak, abenduaren 31n.

Saldoei buruzko informazioak, txanpon birtual bakoitzari dagokionez, honako hauek jasoko ditu: txanpon birtual mota, txanpon birtualeko unitateen kopurua abenduaren 31n eta horien balorazioa eurotan.

Balorazioa eurotan egiteko, behartuta dauden subjektuek negoziazio plataforma nagusiek edo prezioen jarraipena egiteko webguneek abenduaren 31n emandako kotizazioa hartuko dute edo, bestela, txanpon birtualaren merkatu balioaren arrazoizko zenbatespena egingo dute, eurotan, abenduaren 31n. Horri dagokionez, zenbatespena egiteko erabilitako kotizazioa edo balioa adieraziko da.

Era berean, diru fiduziarioaren saldoen berri eman beharko da abenduaren 31n, betiere hirugarrenen kontura badituzte; diru fiduziarioari dagokionez, apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen diren titularren, baimenduen edo onuradunen identifikazio datu berberak emango dira, bai eta eurotan duen balorazioa ere, moneta euroa ez bada.

3. Abenduaren 31 baino lehen artikulua honetako 1. apartatuan aipatzen diren pertsona edo erakundeek artikulua honetako 2. apartatuan aipatzen diren pertsona edo erakundeen txanpon birtualak zaintzeari utzi badiote, eman beharreko informazioa gertatu den eguneko izango da.

4. Artikulu honen ondorioetarako, txanpon birtuala eta diru fiduziarioa Kapitalak zurriztearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 1. artikulua 5. eta 6. apartatuetan xedatutakoaren arabera ulertuko dira, hurrenez hurren.”

Hamaika. 26 bis artikulua gehitzen da. Hona testua:

“26 bis artikulua. Txanpon birtualekin egindako eragiketei buruz informatzeko beharra

1. Araban bizi diren pertsona eta erakundeek eta atzerrian bizi diren pertsona edo erakundeen Arabako establezimendu iraunkorrek, baldin eta txanpon birtualen eta diru fiduziarioaren artean edo moneta birtualen artean truke-zerbitzuak ematen badituzte, eragiketa horiek egiteko bitartekari gisa jarduten badute, edo hirugarrenen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen badituzte, txanpon birtualak mantentzeko, biltegitatzeko eta transferitzeko, urtero informazio aitortpen bat aurkeztu beharko dute txanpon birtualak eskuratu, eskualdatu, trukatu eta transferitzeko eragiketei buruz, hitzartutako kontraprestazioa edozein dela ere, bai eta esku hartu duten edo bitartekari izan diren txanpon horietan kobratutako eta ordaindutako eragiketei buruz, dagokion eredia onesten duen Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuaren foru aginduak ezartzen duen tokian, moduan eta epean.

Ez dira aurreko paragrafoan sartutakotzat hartuko honako jarduera hauek soilik egiten dituzten pertsonak edo erakundeak: moneta birtualei buruzko aholkularitza, txanpon birtualekin eragiketak egin nahi dituzten alderdiak harremanetan jartzea, edo txanpon birtualen eta diru fiduziarioaren arteko edo txanpon birtualen arteko truke zerbitzuak, edo hirugarrenen edo haien bezeroen izenean kode kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituzten pertsona edo erakundeek diru fiduziarioan kobratzeko eta ordaintzeko aginduei erantzute hutsa.

2. Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hauek jasoko ditu: aurreko paragrafoan adierazitako eragiketak egiten dituzten subjektuen izen-abizenak, izen soziala edo izen osoa, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

Eragiketa bakoitzari dagokionez, Zerga Administrazioari eman beharreko informazioak honako hauek jasoko ditu: eragiketa mota; eragiketaren data; erositako, eskualdatutako, trukaturako edo transferitutako txanpon birtualeko unitateen mota eta kopurua; eragiketa egiteko erabilitako balioa eurotan eta, hala badagokio, informazioa eman behar duen subjektuak eragiketari lotuta jasoko dituen komisio eta gastuak.

Kontraprestaziorik badago eta informazioa eman behar duena bada ordaindu edo jasoko duena, hura jasotzeko edo entregatzeko bitartekari gisa jarduten duena edo horren berri duena, jakinaraziko da diru fiduziariora, beste moneta edo aktibo birtual bat, ondasun edo zerbitzuak edo aurrekoen konbinazio bat den.

Eragiketak diru fiduziario osoko kontraprestaziorik ez badakar, eta, beraz, eragiketa eurotan baloratu behar bada, behartutako subjektuek eragiketa egin den datan negoziazio plataforma nagusiek edo prezioen jarraipena egiteko webguneek emandako kotizazioa erabiliko dute edo, bestela, eragiketa egin den datan txanpon birtualak duen merkatu balioaren arrazoizko zenbatespena emango dute, eurotan. Horri dagokionez, zenbatespena egiteko erabilitako kotizazioa edo balioa adieraziko da.

3. Araban bizi diren pertsonak eta erakundeak eta atzerrian bizi diren pertsonen edo erakundeen Arabako establezimendu iraunkorrek, txanpon birtual berrien hasierako eskaintzak egiten badituzte, aipatutako urteko informazio aitortpena aurkeztu beharko dute, aurreko apartatuan xedatutako informazioarekin, beste txanpon birtual batzuen edo diru fiduziarioaren truke ematen dituzten txanpon birtual berriei dagokienez, dagokion eredia onesten duen Foru Aginduan ezarritako baldintzetan.

Hala ere, txanpon birtual berrien hasierako eskaintzak artikulua honen 1. apartatuan aipatzen diren subjektuetako baten bitartekaritzarekin egiten badira, azken horrek egin beharko du urteko informazio aitortpena, txanpon birtual berrien hasierako eskaintza egiten duen pertsonaren edo erakundearen bizilekua edozein dela ere, eta haren identifikazioa eta aurreko apartatuan ezarritako informazioa jasoko ditu, artikulua honen 1. apartatuan aipatzen diren eta hasierako eskaintza horren esparruan egiten diren eragiketa guztiei dagokienez, dagokion eredia onesten duen Foru Aginduak ezarritakoaren arabera.

4. Artikulu honen ondorioetarako, txanpon birtuala eta diru fiduziarioa Kapitalak zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren kontrako apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 1. artikulua 5. eta 6. apartatuetan xedatutakoaren arabera ulertuko dira, hurrenez hurren."

XEDAPEN GEHIGARRIA

Bakarra. Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroan sartzea, kanpoan uztea eta publikotasuna.

Edozein pertsona edo erakunde Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroan sartu edo kanpoan uzteko erabakia produktu mota bati edo besteari buruzkoa izango da, eta organo eskudunak sartzeko edo baztertzeko erabaki arrazoitua hartu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina. Erabaki hori pertsona edo erakunde interesdunari jakinarazi beharko zaio.

Erauzle diren pertsona edo erakundeen erregistro horretako kide izatea publikoa izango da, eta Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuen gordailu fiskalen titularrek kontsultatu ahal izango dute uneoro, elektronikoki. Zerga Administrazioak beharrezkoak diren sistema teknikoak jarriko ditu eskura erauzle diren pertsona edo erakundeen erregistroan operatzen dutenen egoera kontsultatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroa.

Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioko Energia Politikako eta Meatzeetako Zuzendaritza Nagusiko Hidrokarburoen eta Erregai Berrien Zuzendariordetza Nagusiak kudeatutako petrolio produktuen handizkako operadoreen zerrendan sartuta dauden hidrokarbuo operadoreak, eta ekainaren 21eko 443/2013 Foru Aginduan xedatutako jasana-razitako kuoten 2022ko informazio aitortpenetan Alkoholaren eta edari alkoholduen gaineko zerga berezien kuoten jasanarazpenaren hartzaile gisa identifikatuta dauden pertsonak eta erakundeak (443/2013 Foru Agindua, ekainaren 21ekoa, 548 eredua, «Fabrikazio zerga bereziak. Jasanarazitako kuoten informazio aitortpena», onesten duena), Alkoholaren eta edari eratorrien edo Hidrokarburoen gaineko zergaren eremu objektiboetan sartutako produktuak gordailu fiskaletatik ateratzen dituzten pertsonen edo erakundeen erregistroan sartuta daudela ulertuko da, produktu mota bati edo besteari dagokionez, erregistro horri buruzko araudia indarrean jartzen den unean. Ondorio horietarako, erregistro horretako alta ofizioz jasoko dute, gerora egin beharreko egiaztapenei kalterik egin gabe.

Bigarrena. Txanpon birtualei buruzko informazio betebeharren araubide iragankorra.

1. Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 23 bis artikuluan aipatzen diren txanpon birtualei buruzko informazio betebeharrei buruzko lehen adierazpenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu beharko dira, aurreko urteko informazioari dagokionez.

2. Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 26. artikuluan aipatzen diren txanpon birtualei buruzko informazio betebeharrei buruzko lehen adierazpenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu beharko dira, aurreko urteko informazioari dagokionez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuaren foru agindu bidez zehaztutako epean.

3. Abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren 26 bis artikuluan aipatzen diren txanpon birtualekin egindako eragiketei buruzko informazio betebeharrei buruzko lehen adierazpenak 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkeztu beharko dira, aurreko urteko eragiketei dagokienez, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu saileko diputatuaren foru agindu bidez zehaztutako epean.

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean; artikuluetan ezartzen diren ondorioak sortuko ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua
ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA